



**2010EKO AZAROAREN 25EKO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamarreko azaroaren hogeita bostean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M<sup>a</sup> Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Ricardo Crespo Rubio, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Ángel Hernández Marzal zinegotzia ez da bertaratu.

Aktan adieraziko da Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2010eko urriaren 28an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- KONTENTZIOSOAN BERTARATZE ERABAKIA BERRESTEA.-**

Euskal Herriko Justizia Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietako Salak idatzia bidali du Udal honetara, Irastorza Larreta anai arrebeke errekurtsio kontentzioso-administratiboa tartearri dutela jakinaraziz. Aipatu errekurtsioa, Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 21H.J.A.ko "Kanpandegi-Amebi-Meandro" Plan Partziala behin-betikoz onartuz 2009-10-29an Lazkaoko Udalak hartutako erabakiaren aurkakoa da.

Honen aurrean, alkateak, 2010eko uztailaren 5eko alkatezaren ebazpen bidez zera ebatzi zuen:

1. Euskal Herriko Justizia Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzietako Salara eskatutako espedientearen egiaztatutako kopia foliatua bidaltzea.

2. Espedientean interesatu direnak enplazatzea, 9 eguneko epean errekurtsioan deman-  
datu bezala bertaratu ahal izateko.

3. Udala prozedimentuan bertaratzea, Jon Orue-Etxebarria Iturri abokatua izanik.

Hau honela, Udal Osoko Bilkurak erabaki hauek berretsi ditzan proposatzen da.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partaide guztien al-  
deko botuekin, alkatetzaren ebazpenean hartutako erabakietan berrestea erabakitzen du.

#### IV.- KIROLDEGIAN ARKITEKTURA OZTOPOAK KENTZEA LANEN 4. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren Arkitektura Oztupoak Kentzea lanen obra  
zuzendaritza daramaten LKS Ingeniería, S. Coop.ko Javier de la Fuente Carazo arkitektoa  
eta Nerea Mujika Estensoro arkitekto teknikoek lanen laugarren obra-egiaztagiria luzatu  
dute. Laugarren obra egiaztagiriaren zenbatekoa LAUROGEI MILA EHUN ETA HOGEITA  
HIRU EURO eta LAU ZENTIMOtakoa (80.123,04 €) da. Lan hauek Construcciones Artza-  
mendi, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hauek aztertu eta bere oniritzia eman die.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botue-  
kin, Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren Arkitektura Oztupoak Kentzea lanen lauga-  
rren obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

Une honetan Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia bertaratu da.

#### V.- KIROLDEGIAN ARKITEKTURA OZTOPOAK KENTZEA PROIEKTUAREN LANAK BURUTZE- KO LUZAPENA ESKATZEA.-

Joxemiel Barandiaran Kiroldegian arkitektura oztupoak kentzea "proiektuko lanen  
Obra Zuzendaritzak lanen luzapena eskatuz eskaria aurkeztu du udal honetan. Eskari ho-  
netan adierazten da Udal Kiroldegia egiten ari den erreforma lana izatean, berau funtzio-  
namenduan dagoen bitartean egiteak eta beraz bere jardueketa guztiekin batera, sortu di-  
ren ez-ustekoak kontaezinak izan direla, eta txostenak izandako ezustekoak zehazten ditu,  
bai lur mugimendu eta zimentazio fasean; bai egitura metaliko eta "bertan egindako" hor-  
migoizko egitura fasean; bai sua eta erdoilaren babeserako egitura metalikoaren pintatze  
fasean. Eta txosten teknikoak bukatzen du esanez guzti horren ondorioz lanen bukaerak  
hiru hilabeteko atzerapena izango dutela aurrikusten denez.

Osoko Bilkurak, Obra Zuzendaritzak aurkeztutako epearen luzapen eskaeraren au-  
rrean, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- Lurralde Politika eta Herri Administrazioaren Ministeritzako Toki Koordinakunde-  
aren Zuzendaritza Orokorrari "Lazkaon Joxemiel Barandiaran Kiroldegian arkitektura ozto-  
poak kentzea" lanen egikaritzaren epearen luzapena eskatzea, lanak 2011ko martxoaren  
8an bukatzera pasatuz.

#### VI.- URAREN KANONAREN KUDEAKETARAKO UR AGENTZIAREKIN HITZARMENA.-



Urei buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen bitartez uraren kanona sortu zen, honako helburu hauekin: ur-ingurunea babestea, lehengoratzeta eta hobetzea; administrazio eskudunen arteko lankidetzeta sortzea, horniketa-eta saneamendu-zerbitzu eraginkorrak lortzeko; eta lurraldeen arteko elkartasuna erdiestea.

Lazkaoko udalak, ur-hornitzaile gisa, Legearen 48. artikuluko 3. eta atalei jarraiki, Uraren Kanonaren kudeaketan esku hartu behar du. Izan ere, honakoa dio artikuluko horrek:

*"3.- Erabiltzaileak urez hornitzen dituzten erakundeen ardura izango da uraren kanona kudeatzea eta biltzea, lege honetan eta berau garatzen duen erreglamenduan ezarritako balditzetan. Orobat, modu solidarioan erantzungo diote uraren behe-horniketa erabiltzen duten pertsona edo erakundeei uraren kanona dela-eta exijitu behar izan dizkieten kopuruaren diru-sarrera egiteko beharrari.*

*4.- Uraren Euskal Agentziak kalte-ordainak eman ahal izango dizkie erakunde hornitzaileei, horiei esleitzen zaien kudeaketaren ondoriozko kostuak konpentsatze aldera."*

240/2007 eta 181/2008 Dekretuen gauzatzeak Hitzarmenak izenpetzea gomendatzen du, horietan, Legean aurreikusitako lankidetzaren irismena arautzeko, erakunde hornitzaileek eta Uraren Euskal Agentziak, koordinatuta, zerga honen bilketa kudeatu ahal izateko, eta erakunde hornitzaileei kudeaketan laguntzearen ondoriozko kostuak konpentsatzeko kalte-ordainak ezartze aldera.

Erakunde bien jarduketa-ildoak, hirugarren kudeaketa-lanei dagozkienak eta Agentziak berak aprobetxamendu propioen titularrentzat kudeatu behar dituenak erabat bateratu ahal izateko, alde biek interesgarritzat jo dute LANKIDETZA HITZARMENA izenpetzea.

Guzti honen aurrean, Osoko Bilkurak, lankidetzeta hitzarmen hau aztertu ondoren eta Ogasun Batzorde Informatzailearen proposamenez, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordio hauek hartzen ditu:

1.- Uraren kanonaren kudeaketarako Ur Agentzia eta Lazkaoko Udalaren arteko hitzarmena, bere espedientean aurkitzen dena, onartzea.

2.- Alkatea ahalmentzea Lazkaoko Udalaren izenean hitzarmen hau izenpetu dezan.

#### VII.- BENEDITARREN ARTXIBATEGIA FUNDAZIOA SORTZEA.-

Juan Joxe Agirre Aita Beneditarrak urteetan zehar bildutako dokumentazioa behar bezala jasoko duen artxibategia hartzeko eraikina eraiki da orain dela gutxi Lazkaoko Aita beneditarren konbentuaren aldamenean, Lazkaoko Aita Beneditarrak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Lazkaoko Udal honekin izenpetutako hitzarmen banaren bitartez.

Gainera eta artxibategi hori Lazkaoko Herrian finkatuta gelditzearen eta esku pribatuetan bukatu ez dezan berme gisa, artxibategi eraikina eraiki deneko orubea Lazkaoko udal honen jabetzakoa da.

Orain artxibategiaren funtzionamendu eta mantenimendua bideratzearen, patroiz sortzaile gisa Lazkaoko Aita Beneditarrak, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Lazkaoko Udal



izango dituen fundazioaren sorrera planteatzen da, horretarako osatu eta hiru patroien artean adostu diren estatutuen arabera.

Fundazio horretan, berau osatzen duten hiru patroei sortzaileetako bakoitzak bi ordezkari izango lituzke eta Lazkaoko Udalaren izenean Alkatea, Patxi Albisu Estensoro, eta Kultura Zinegotzia, Xabier Arrasate Aierbe, izendatzea proposatzen da.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du ondo ikusten dutela fundazioaren sorrera eta alde bozkatuko dutela.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren eta Kultura eta Ogasun Batzordea Informatzaileen proposamenez, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Lazkaoko Aita Beneditarren Artxibategia Fundazioaren sorrera onartzea.
- 2.- Lazkaoko Aita Beneditarren Artxibategia Fundazioaren estatutoak, bere espedientean aurkitzen direnak, onartzea.
- 3.- Lazkaoko Aita Beneditarren Artxibategia Fundazioan Lazkaoko Udalaren ordezkari gisa Alkatea, Patxi Albisu Estensoro, eta Kultura Zinegotzia, Xabier Arrasate Aierbe, izendatzea.
- 4.- Lazkaoko Aita Beneditarren Artxibategia Fundazioa sortzeko behar diren dokumentuak Lazkaoko Udalaren izenean izenpetu ditzan alkatea ahalmentzea.

#### VIII.- ISUNEN ORDENANTZAREN ALDAKETA.-

Uztailaren 25eko 18/1989 Legean eta Trafiko, Motorrezko Ibilgailuen Zirkulazioa eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen atalez atal egindako textua onartzen duen martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretuan eta gainontzeko xedapen aplikagarrietan izandako aldaketak, Lazkaoko udalerrian trafikoari dagokionean egingo diren arauhaustek arautzen dituen Udal Ordenantza aldatzea behartzen du, berau zuzen aplikatu ahal izateko.

Honen aurrean aipatu ordenantzaren aldaketa hau onartzea planteatzen da.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du ados daudela ordenantzaren aldaketarekin baina trafikoaren benetako kontrola egotea espero dutela udalerriko bazter guztietan eta ordenantza benetan aplikatu dadila eta Lazkaon isunik jartzen ez denaren itxurarik ez dadila egon.

Saldaña zinegotziak (Alternatiba) esaten du bere ideia isunak jartzearena baina gehiago jendea hezitzean legokela eta isuna azken muturreko baliabidea izan dadila.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du gai honetan zorrotasuna behar dela eta horretan ados dagoela baina bestalde baita ere ez duela uste herritarra isun gehiegikin zamatu behar denik, ez dadila dirubiltzeko gehiegizko nahia dagoenaren itxura egon.

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, planteatzen den aldaketa aztertu eta Gobernamentu Batzorde Informatzailearen proposamenaren aurrean, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordio hauek hartzen ditu:



- 1.- Trafikoari dagokionean arauhaustek arautzen dituen ordenantzaren aldaketa, bere espedientean aurkitzen dena, hasierako izaeraz onartzea.
- 2.- Hasierako onarpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragartzea, espedientea jendaurrean 30 egunetako denboraldian jarritz.
- 3.- Jendaurrean dagoen denboraldian inolako alegaziorik aurkeztuko ez balitz, hasierako onarpena behin betikoa bihurtuko litzateke espreski hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

### IX.- EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNAREN AURREAN ADIERAZPENA.-

Moziok honela dio:

"Aurten ere, azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, indarkeria sinboliko, leun, maltzur eta ia ikusezin horretan jarri nahi dugu arreta, zeinaren gainean eraikitzen baita emakumeen identitatea eta, era berean, emakumeen aurkako indarkeria fisikoa ahalbidetzen baitu.

Indarkeria sinboliko hori ideia okerretan oinarritzen da, baina ideia horiek oso zabaldua daude eta naturalizat hartzen dira; esate baterako, ordu eta leku jakin batzuetan emakume izatea arriskutsua dela; sexu-eraso bat baino ezer larriagorik ez dagoela barneratzea baina emakumeak ezin direla eraso horietatik babestu; beldur izaten ikastea eta hauskor sentitzea, babestua izan beharra sentitzea, nahiz eta inork ez adierazi zeri edota nori izan behar zaion beldur; lotsatuta edo errudun sentitzea sexu-eraso bat jasan izanagatik edota tratu txarrak jasan izanagatik, eta nahiago izatea hori justifikatzea edo ukatzea, gaia onartu edo kritikatu beharrean; emakumeen sexu-askatasuna probokazio sexuala dela ulertzea, eta gizon batzuen jokaera erasotzaile potentziala justifikatzen duena uste izatea; edo pentsatzea bikote barruko kontrola eta jeloskortasuna maitasunaren parte direla, eta bikotea, saiatuz gero, maitasunagatik aldatu daitekeela.

Hori guztiori dela eta, urte osoan zehar jarri behar dugu arreta gure udalerriko nerabe eta gazteengan, baina are gehiago, estrategikoki, egun hau hurbiltzean, 2009an egin genuen bezala. Modu horretan, indarkeriaren formarik leun, naturalizatu eta sozialki onartuenak ezagutu ditzaten, eta horren aurrean hain hauskorak izan ez daitezten.

Horretarako, BERDINSAREAREN iazko kanpainen erabilitako goiburua berreskuratu nahi dugu: BELDUR BARIK. Zeren "Beldur barik" esateak beldurra ukatzen du, emakumeen kontrol-estrategia gisa. Era berean, kontuan hartuta emakume izatea arrisku potentziala dela, "Beldur barik" esateak aitortzen du Udal honek aukera eman behar duela emakumeak zenbait tresnaz jabetzeko, gaitz hori prebenitzeko eta norik bere burua defendatzeko. Borondate hori gure udalerrietako exijentzia inperatibo bihurtu beharko litzateke.

Modu horretan, gazteei zuzeneko indarkeria fisikoa prebenitzen lagunduko diegu, baina, gainera, agente aktiboak izatera animatuko ditugu, emakumeenganako edozein indarkeria mota errefusatu dezaten eta horren aurka modu indibidual zein kolektiboan egiteko estrategiak izan ditzaten.



Horren guztiaren jakitun, Udal honek

KONPROMISO HAU HARTZEN DU: bere eskumenen esparruan eta indarrean dagoen legegia aplikatuz, udal politika aktibo, integral eta koordinatua garatzea berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka, eta arreta berezia jartzea emakume gazte eta nerabeek jasaten duten indarkeriarengan, modu eraginkorrean baliatu daitezten beldurrik gabe bizitzeko eskubideaz eta indarkeriaren aurka defendatzeko aukeraz.

KOMENIGARRIA DA urtean zehar zenbait ekimen abiaraztea. Horrela, emakumeen partaidetza aktiboarekin, beldurrari eta hauskortasunari aurre egiteko behar diren baliabideak jarriko dira euren esku, euren jabekuntza ahalbidetuz; era berean, gazteekin batera egin beharreko lana bultzatuko da, portaera sexistak prebenitzeko eta eraso matxisten aurrean jokaera aktiboa izan dezaten animatzeko.

ANIMATU EGITEN DITU herritarrak, eta, oso modu berezian, herriko neska-mutilak, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna (azaroaren 25a) dela-eta egingo diren ekintzetan parte hartzera, indarkeria horren aurka modu publikoan agertzera, eta BERDINSAREAK kanpaina honen barruan antolatu duen Beldur Barik! jaialdi artistikoan parte hartzera (jaialdia azaroaren 27an izango da, Bilbon).

Puntu lila erabiltzeko GONBIDAPENA EGITEN DU, emakumeenganako indarkeriaren aurkako sinboloa den aldetik. Eta, hasteko, puntu lila bat jarriko du udaletxearen eraikin nagusian, ondo ikusten den leku batean eta modu iraunkorrean."

Saldaña zinegotziak (Alternatiba) esaten du mozioa bultzatzen dutela eta eskatzen dutela herrian gertatzen den kasu bakoitzeko udala salatzaile partikular gisa aurkeztu dadila.

Alkateak erantzuten dio azken hori aztertu eta baloratuko dela baina ez dagoela gaur eztabaidatzen den mozioaren barne.

Guzti honen ondoren gaia bozketan jartzen da eta , Osoko Billkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin mozioa onartzea erabakitzen du.

#### X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

